

Abiadura

Hondarribia, 28. zk., 1989-02: 5.

Hondarribian abiadura handiengan ibiltzen diren ibilgailuak, egazkinak ditugu, eta, diotenez, laster dira *aidean* gaurko motorrekoak baino propulsiio azkarragoz ibiliko direnak.

Aurrerapen teknikoak onuragarriak dira, noski.

Itsasoan ere, denbora bateko arraunak, belauntziak eta baporeak baino abaila handiagoan dabilzan Dieselak direla medio, arrantzaleek arrain bila azkar eta urrunago joateko gai dira.

Eta badugu horien beharrik!

Aidean eta itsasoan bezala gertatzen da lehorrean ere: motozikleten zilindradak eta zaratak gora eta gora doaz; gauza bera automobil, autobus, kamioi beste ibilgailuekin ere.

Bestalde, hemen gizakiok ere hasi gara mugitzen, eta gaur adina abiadurako pertsonarik ez da Hondarribiako historia luzean ikusi; praka motxak jantzi bezain laster ditugu arineketan, eta praka luzekook ere sendagilearen aginduetara jarri eta hasiak gara ahal dugun abiaduran ibiltzen, urteen eta osasunaren arabera, noski.

Hasiak gara ba gizakiok berezko dugun motorrarekin entrenatzen.

Baina beldur naiz karrera honetan motorra nagusituko ez ote den, eta gailuak bezain azkar ibili ezin direnak suntsituko ez ote dituzten, gaituzten.

Martxa horretan abiatuak gara!

Begira gure herriko kaleetan zehar zer gertatzen hasi den; lehiaketa-pista bat balitzain aparatoak Hondarribian zitzu bizian!, herriko kaleak goi-lehiaketarako pistak balira bezala!

Eta ez dira!

Hondarribiako kaleetatik ibiltzea libre dute gailuek, noski, ez dago gailuentzat debekurik; baina lehentasun osoa pertsonen zori zaien hor, eta gailuen abiadura jaitsi egin behar dute, bestela haur, heldu, elbarri eta zahar guztiak garbituko dituzte, gaituzte.

Gero, Requiem-ak garesti izaten dira, gero!

Egia da Sabino Arana ibiltokiko sarreratik 40 km. markatzen dituen trafiko-seinaleak ez direla hirigunean ageri; baina ageri ez direlako ez da gailu-abiadurarentzat, ziztua libre; hirigunea gurutzatu arte ezin da Iterlimengo edo aparkaleku berriko karrera-pistako abiadura hartu, oraindik!, tarte horretan gizakiak ezin dire untxeak bezala ehizatu!

Eta bere ziztuan jarraitzen badute, norbaitek gelarazi behar die legezko den isuna ezartzeko.

Hirigunea, oinez dabilten gizakien mende bego, eta ez bestela!

Zebrabideetan bereziki!

Lau kurpilen gainean nagusi direnak errepideetan nahiko kalte egiten dute eta!
Aurrerapen teknikoak onuragarriak dira, noski, baina gizakiaren neurrian.